Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

1492

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 23koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Aiarako (Araba), Kexaako eraikin-multzoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratu zuen otsailaren 26ko 53/2002 Dekretua aldatzeko espedienteari hasiera emateko eta interesdunei entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16. artikuluaren babesean eta Autonomia Estatutuko 10.19. artikuluaren arabera, kultura-ondareari buruzko eskumen osoa bereganatu zuen. Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumenaz baliatuz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea onetsi zen, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-interesa duten ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2001eko azaroaren 21eko Ebazpenaren bidez, Aiarako (Araba) Kexaako eraikin-multzoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Jendaurreko informazioaldia eta interesdunei entzuteko izapideak burutu ondoren, Kultura sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, Aiarako (Araba) Kexaako eraikin-multzoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratu zen otsailaren 26ko 53/2002 Dekretuaren bidez, (martxoaren 8ko EHAAn argitaratua, 48 zk.)

Ikusita aipatutako Dekretuak Kexaako eraikin-multzoan dauden ondasun higigarriak ez dituela ez zerrendatu ez dagokien babes-araudia ezarri, eta horiek eraikin-multzoa ulertzeko beharrezkotzat jo direnez gero, beren interes historiko-artistikoagatik eta eraikin-multzoarekin duten loturagatik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek emandako ebazpen-proposamena aztertuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Aiarako (Araba) Kexaako eraikin-multzoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasuna deklaratu zuen otsailaren 26ko 53/2002 Dekretua aldatzeko espedienteari hasiera ematea, kultura-ondasun horretatik banandu ezinezkotzat jotako ondasun higigarriak sartzeko, ebazpen proposamen honen eranskinean jasotzen den muga-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1492

RESOLUCIÓN de 23 de diciembre de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente de modificación del Decreto 53/2002, de 26 de febrero, por el que se declara Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Conjunto Edificado de Quejana, en Ayala (Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En ejercicio de la competencia asumida, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante Resolución de 21 de noviembre de 2001, publicada en el BOPV nº 243 de 18 de diciembre, se acuerda incoar expediente de declaración como Bien Cultural calificado a favor del Conjunto Edificado de Quejana, en Ayala (Álava). Tras los trámites de información pública y audiencia a los interesados, a propuesta de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, mediante el Decreto 53/2002, de 26 de febrero, se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Conjunto Edificado de Quejana, en Ayala (Álava), publicado en el BOPV nº 48 de 8 de marzo.

Visto que en el citado Decreto no se han relacionado ni se ha establecido régimen de protección alguno para los bienes muebles albergados en el Conjunto Edificado de Quejana, visto el interés histórico-artístico de algunos de ellos y su carácter de inseparables del Conjunto Edificado por su vinculación histórica y/o artística, resultando imprescindibles para la comprensión del mismo, y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente para la modificación del Decreto 53/2002, de 26 de febrero, por el que se declara como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Conjunto Edificado de Quejana, en Ayala (Álava), para incluir los bienes muebles que se reconocen como inseparables del mismo, según la relación, descripción y régi-

ketaren, deskripzioaren eta babes araudiaren arabera. Eranskin hori aurrerantzean aipaturiko 53/2002 Dekretuaren IV. eranskina izango da.

Espediente honen hasiera emateak Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen duen babes araudia behin-behinean indarrean jartzea dakar, monumentu-multzo honi lotuta dauden ondasun sailkatuei buruz.

Bigarrena.– Hasiera ematea Aiarako (Araba) Kexaako eraikin-multzoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasuna deklaratu zuen otsailaren 26ko 53/2002 Dekretua aldatzeko irekitako espedientea jendaurrean jartzeko epeari, Eranskinean jasotzen den mugaketa, deskripzioa eta babes araudiaren arabera. Jendaurreko informazio-aldia hogei egunekoa izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ezarritako epe horretan interesatuek nahi dituzten alegazioak egin eta agiriak aurkez ditzakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84 eta 86 artikuluek aurreikusten duten legez. Aipatutako espedienteak Kultura Ondarearen Zentroan daude (Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Aiarako Udalari (Araba), eta baita Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol sailari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari jakinaraztea espediente honi hasiera emateak babes araudia behin-behinean indarrean jartzea dakarrela, monumentu-multzo honi lotuta dauden ondasun sailkatuei buruz, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa den 7/1990 Legeko 22. artikuluaren arabera.

Laugarrena.– Espedientearen izapideei ekitea, indarrean dauden xedapenekin bat.

Bosgarrena.– Ebazpena jakinaraztea interesdunei, bai Aiarako Udalari (Araba) eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari eta bai Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari ere.

Seigarrena.–. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratu dadila, guztiek honen berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 23a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

men de protección que se determina en el Anexo de la presente Resolución, que pasará a ser el Anexo IV del citado Decreto 53/2002.

La incoación de este expediente determinará respecto a los bienes muebles vinculados a dicho Conjunto Monumental, la aplicación provisional del régimen de protección previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco para los bienes calificados

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente incoado para la modificación de la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental , a favor del Conjunto Edificado de Quejana, en Ayala (Álava), según la relación, descripción y régimen de protección que se determina en el Anexo, para que durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estimen oportunas, como previene los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la Calle Donostia-San Sebastián nº 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Hacer saber al Ayuntamiento de Ayala (Álava), así como a los Departamentos de Euskera, Cultura Deportes y Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava que la incoación del presente procedimiento, conforme al artículo 22 de la Ley 7/1990 del Patrimonio Cultural Vasco, determinará, respecto de los bienes muebles afectados, la aplicación provisional del régimen de protección previsto para los bienes calificados.

Cuarto.– Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Quinto.– Notificar la presente Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Ayala y a los Departamentos de Euskera, Cultura Deportes y Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

1. ATALA

KEXAAKO MONUMENTU MULTZOKO ONDASUN HIGIGARRIEN ZERRENDA

Ondasun higigarriak	Kokapena
1.– Adatseko Ama Birjinaren erlikia-ontzi originala	Kexaako museoa
2.– Ayala kantzelariaren eta Leonor Guzman anderearen hilobia	Adatseko Ama Birjinaren kapera
3.– Fernan Perez Ayala jaunaren eskultura etzana	Adatseko Ama Birjinaren kapera
4.– Elvira Ceballos anderearen eskultura etzana	Adatseko Ama Birjinaren kapera
5.– Adatseko Ama Birjinaren erretaularen eta aurrealdearen kopia	Adatseko Ama Birjinaren kapera
6.– Kapera eraiki izanaren oroitarria	Adatseko Ama Birjinaren kapera
7.– Fernan Perez Ayala jaunaren eskultura etzana	San Juan Bataiatzailearen parrokia
8.– Maria de Sarmiento anderearen eskultura etzana	San Juan Bataiatzailearen parrokia
9.– San Juan Bataiatzailearen parrokiako ondasun higigarriak: 9.1.– Erretaula Nagusia 9.2.– Arrosarioko Andre Mariaren erretaula 9.3.– Santa Katalina Sienakoaren erretaula 9.4.– Santo Domingo Guzmanen erretaula 9.5.– San Joseren erretaula 9.6.– Pulpitua eta bere sabaia 9.7.– Kristo Gurutziltzatuaren taila	San Juan Bataiatzailearen parrokia
10.– Kexaako komentuaren artxibo dokumentala	San Juan Bataiatzailearen parrokia
11.– San Juan Bataiatzailearen taila	Kexaako museoa
12.– Kristo Gurutziltzatuaren taila: «Kristo marinela»	Kexaako museoa
13.– Veneziar kopoia	Kexaako museoa
14.– Beste elementu batzuk: 14.1.– Gurutzea, nakarrezko inkrustazioak dituena 14.2.– Epifania 14.3.– Ama Birjinaren bi irudi, marfilezkoak	Kexaako museoa

ANEXO

SECCIÓN 1.ª

RELACIÓN DE BIENES MUEBLES VINCULADOS AL CONJUNTO MONUMENTAL DE QUEJANA

Bienes muebles	*Ubicación*
1.– Relicario original de la Virgen del Cabello	*Museo de Quejana*
2.– Sepulcro del Canciller Ayala y Dña. Leonor de Guzman	*Capilla de la Virgen del Cabello*
3.– Escultura yacente de D. Fernán Pérez de Ayala	*Capilla de la Virgen del Cabello*
4.– Escultura yacente de Dña. Elvira de Ceballos	*Capilla de la Virgen del Cabello*
5.– Copia del retablo y frontal de la Virgen del Cabello	*Capilla de la Virgen del Cabello*
6.– Lápida conmemorativa de la construcción de la capilla	*Capilla de la Virgen del Cabello*
7.– Escultura yacente de D. Fernán Pérez de Ayala	*Iglesia Parroquial de San Juan Bautista*
8.– Escultura yacente de Dña. María de Sarmiento	*Iglesia Parroquial de San Juan Bautista*
9.– Conjunto de bienes muebles de la Iglesia parroquial de San Juan Bautista: *9.1.– Retablo Mayor* *9.2.– Retablo de la Virgen del Rosario* *9.3.– Retablo de Santa Catalina de Siena* *9.4.– Retablo de Santo Domingo de Guzmán* *9.5.– Retablo de San José* *9.6.– Púlpito y guardavoz* *9.7.– Talla de Cristo crucificado*	*Iglesia Parroquial de San Juan Bautista*
10.– Archivo documental del Convento de Quejana	*Convento de San Juan Bautista*
11.– Talla de San Juan Bautista	*Museo de Quejana*
12.– Talla de Cristo crucificado «Cristo marinero»	*Museo de Quejana*
13.– Copón veneciano	*Museo de Quejana*
14.– Otros elementos: *14.1.– Cruz con incrustaciones en nácar* *14.2.– Epifanía* *14.3.– Dos imágenes de la Virgen en marfil*	*Museo de Quejana*

2. ATALA

KEXAAKO MONUMENTU MULTZOKO ONDASUN HIGIGARRIEN DESKRIBAKETA

1.– Adatseko Ama Birjinaren erlikia-ontzi originala

Kokapena: Kexaako museoa.

XIV. mendearen lehen erdialdeko erlikia-ontzia. Urre eta zilar urreztatuz eta xehetasun handiz egina, piramide zulatuan errematatutako kapera itxi bat da, eta zabaldutakoan Ama Birjinaren eskulturatxoa agertzen da, buruan erlikia-ontzi bat daramala. Bere inguruan sortu zen Adatseko Ama Birjinaren kapera, eta estu-estu dago lotua Komentuaren historiarekin.,

2.– Ayala kantzelariaren (Pedro Lopez Ayala) eta Leonor Guzman anderearen hilobia

Kokapena: Adatseko Ama Birjinaren Kaperaren nabea (Kantzelariaren Dorrea). Erdialdea.

Hilobi bikoitza, gotikoa, alabastrozkoa, XIV. mendearen bukaera eta XV.aren hasierakoa. Lau hostoz eta hamabi lehoiz apaindutako basamentua du, eta haren gainean Kantzelariaren eta bere emaztearen irudiak daude, oinetan zakur etzanak dituztela. Kantzelariak militar-jantziak daramatza, haien gainean botoiz lotutako aljuba, eta esku-babesek estalitako eskuez eusten dio ezpatari. Emazteak, gaztelar mantua eta gona nasaia soinean, ilea buru-estalki batek ezkutatuta darama, eta ezkerreko eskuaz otoitz-orduen liburu bati eusten dio. Antza, Toledoko Ferrand Gonzalesen tailerrak egindako lana da.

3.– Fernan Perez de Ayala jaunaren estatua etzana (Kantzelariaren aita)

Kokapena: Adatseko Ama Birjinaren kapera (Kantzelariaren Dorrea). Kaperaren ezkerraldeko hormahilobia.

Mukulu gotiko etzana, alabastrozkoa, XIV. mendearen bukaera eta XV.aren hasierakoa. Tunika luzea darama, eskularruak jantzitako eskuek ezpatari eusten diote, eta oinetan zakur bat agertzen da, etzanda. Antza, Toledoko Ferrand Gonzalesen tailerrak egindako lana da. Estatua hau, bere emaztearenarekin batera, komentuaren kapera nagusian zegoen hilobi bikoitz bakar baten parte zen, eta XVIII. mendean ekarri zuten kapera honetara.

4.– Elvira de Ceballos anderearen eskultura etzana (Kantzelariaren ama)

Kokapena: Adatseko Ama Birjinaren kapera (Kantzelariaren Dorrea). Kaperaren eskuinaldeko hormahilobia.

Mukulu gotiko etzana, alabastrozkoa, XIV. mendearen bukaera eta XV.aren hasierakoa. Mantu luzea darama, ezkerreko eskuan otoitz-liburua eta eskuinekoan lepokoa. Oinetan idazkun bat dago, letra gotikoez egina. Antza, Toledoko Ferrand Gonzalesen tailerrak egindako lana da. Estatua hau, bere senarrarenarekin

SECCIÓN 2.ª

DESCRIPCIÓN DE BIENES MUEBLES VINCULADOS AL CONJUNTO MONUMENTAL DE QUEJANA

1.– Relicario original de la Virgen del Cabello

Ubicación: Museo de Quejana.

Relicario de la primera mitad del siglo XIV. De oro y plata dorada y minuciosa factura, es una capilla cerrada con remate en pirámide calada, que al abrirse descubre esculturilla de la Virgen, con relicario en la cabeza. Es el elemento en torno al cual se crea la capilla de la Virgen del Cabello e indisolublemente unido a la historia del Convento.

2.– Sepulcro del Canciller Ayala (D. Pedro López de Ayala) y Dña. Leonor de Guzmán

Ubicación: En la nave de la Capilla de la Virgen del Cabello (Torre del Canciller). Parte central.

Sepulcro gótico doble en alabastro datado a fines de siglo XIV-comienzos XV. Presenta basamento decorado con cuadrifolios y doce leones, sobre el que se representan las figuras del Canciller y su esposa con perros recostados a sus pies. El Canciller viste atuendo militar y sobre éste, aljuba abotonada, y sujeta la espada con las manos cubiertas por los guanteletes. Su esposa, con manto castellano y amplia falda, lleva toca que oculta su cabello y sostiene con su mano izquierda un libro de horas. Se atribuye esta obra al taller de Ferrand Gonzales de Toledo.

3.– Estatua yacente de D. Fernán Pérez de Ayala (padre del Canciller)

Ubicación: Capilla de la Virgen del Cabello (Torre del Canciller). Nicho en el lado izquierdo de la capilla.

Bulto yacente gótico en alabastro de fines XIV-comienzos XV. El personaje se representa vestido con larga túnica y manos enguantadas que sostienen la espada, con perro recostado a sus pies. Se atribuye al taller de Ferrand Gonzales de Toledo. Esta estatua formaba parte, con la de su esposa, de un sólo sepulcro doble, situado en la capilla mayor del convento, y fue trasladada en el siglo XVIIII a esta capilla.

4.– Estatua yacente de Dña. Elvira de Ceballos (madre del Canciller)

Ubicación: Capilla de la Virgen del Cabello (Torre del Canciller). Nicho en el lado derecho de la capilla.

Bulto yacente gótico en alabastro de fines XIV-comienzos XV. Presenta largo manto y sostiene libro de rezos con mano izquierda y collar con derecha. A los pies figura inscripción, en letras góticas. Se atribuye al taller de Ferrand Gonzales de Toledo. Esta estatua formaba parte, con la de su marido, de un

batera, komentuaren kapera nagusian zegoen hilobi bikoitz bakar baten parte zen, eta XVIII. mendean ekarri zuten kapera honetara.

5.– Adatseko Ama Birjinaren erretaularen eta aurrealdearen kopia

Kokapena: Adatseko Ama Birjinaren kaperako nabea (Kantzelariaren dorrea). Kaperaren burualdea.

Originalaren kopia, Cristobal y Gonzalez de Quesadak 1959an egina. Originala, XIV. mendeko gotiko linealaren adibide bikaina, 1913an saldu zen eta Chicagoko Arte Museoan dago.

Pedro Lopez de Ayalak agindu zuen erretaula egiteko, Adatseko Ama Birjinaren erlikia-ontzia markoztatzearren. Pinturak arkutxo gotikoen barruko eszenetan daude, bi zerrendatan ordenaturik. Erdialdean, Kristo Gurutziltzatua dago, eta behealdean izarrez eta aingeruz errematatutako marko arkitektonikoa, garai batean Adatseko Ama Birjinaren erlikia-ontziaren hondoa zena. Antzeko ezaugarriak dituen Aurrealdean, antzeko ezaugarrian dituenean, Artzainen Deikundea, Jaiotza eta Erregeen Gurtzea ageri dira.

6.– Kapera eraiki izanaren oroitarria

Kokapena: Adatseko Ama Birjinaren kapera (Kantzelariaren Dorrea). Kaperaren oinetan, koruaren azpian.

Alabastrozko oroitarria idazkun gotikoaz, Pedro Lopez Ayala jaunak eta Leonor Guzman andereak 1399an kapera sortu zutela oroitzeko.

7.– Fernan Perez Ayala jaunaren estatua etzana (Kantzelariaren semea)

Kokapena: San Juan Bataiatzailearen parrokia. Nabearen eskuinaldeko horma-hilobia.

XV. mendearen lehen erdialdeko hilobi gotikoa. Mahuka irekiko mantu zabal bat darama, lepoko fina eta durbante moriskoa. Basamentua apaindurik dago Ayalatarren eta Sarmientotarren armarriekin. Oheak idazkun bat darama. Eskultura honek, emaztearenarekin batera, hilobi bakar bat osatzen zuen, eta elizaren beheko korutik hurbil zegoen.

8.– Maria Sarmiento anderearen eskultura etzana (Fernan Perez Ayala jaunaren emaztea)

Kokapena: San Juan Bataiatzailearen parrokia. Nabearen ezkerraldeko horma-hilobia.

XV. mendearen lehen erdialdeko hilobi gotikoa. Fintasun handiz landutako jantzi aberatsak daramatza damak. Basamentua apaindurik dago Ayalatarren eta Sarmientotarren armarriekin. Oheak idazkun bat darama. Eskultura honek, senarrenarekin batera, hilobi bakar bat osatzen zuen, eta elizaren beheko korutik hurbil zegoen.

sólo sepulcro doble, situado en la capilla mayor del convento, y fue trasladada en el siglo XVIIII a esta capilla.

5.– Copia del retablo y frontal de la Virgen del Cabello

Ubicación: Capilla de la Virgen del Cabello (Torre del Canciller).En la cabecera de la capilla.

Copia del original realizada en 1959 por Cristóbal y González de Quesada. El original, magnifico ejemplar del gótico lineal del siglo XIV, fue vendido en 1913 y se encuentra en el Museo de Arte de Chicago.

El retablo fue encargado por el Canciller Pedro López de Ayala, para enmarcar el relicario de la Virgen del Cabello. Las pinturas se disponen en escenas encuadradas por arquillos góticos, y se ordenan en dos franjas, en cuya parte central se representan Cristo Crucificado, y en la parte inferior, marco arquitectónico rematado por estrella y ángel, que servía de fondo para el relicario de la Virgen del Cabello. En el frontal, de características similares, figuran las escenas de Anunciación a los Pastores, Nacimiento y Adoración de los Reyes.

6.– Lápida conmemorativa de la construcción de la capilla

Ubicación: Capilla de la Virgen del Cabello (Torre del Canciller). En los pies de la capilla, debajo del coro.

Lápida de alabastro con inscripción gótica que conmemora la fundación de la capilla por D. Pedro López de Ayala y Dña. Leonor de Guzmán en 1399.

7.– Escultura yacente de D. Fernán Pérez de Ayala (hijo del Canciller)

Ubicación: Iglesia parroquial de San Juan Bautista. Nicho en el lado derecho de la nave.

Sepulcro gótico de la primera mitad del siglo XV. El personaje se representa con amplio manto de mangas abiertas, fina gorguera y turbante morisco. El basamento se decora con escudos de los Ayalas y Sarmientos. En el lecho presenta inscripción. Esta escultura, con la de su esposa, formaba un sepulcro único ubicado cerca del coro bajo de la iglesia.

8.– Escultura yacente de Dña. María de Sarmiento (esposa de D. Fernán Pérez de Ayala)

Ubicación: Iglesia parroquial de San Juan Bautista. Nicho en el lado izquierdo de la nave.

Sepulcro gótico de la primera mitad del siglo XV. La dama se representa con rica indumentaria trabajada con gran delicadeza. El basamento se decora con escudos de los Ayalas y Sarmientos. En el lecho presenta inscripción. Esta escultura, con la de su marido, formaba un sepulcro único ubicado cerca del coro bajo de la iglesia.

9.– San Juan Bataiatzailearen parrokiako ondasun higigarriak

9.1.– Erretaula Nagusia

Kokapena: San Juan Bataiatzailearen parrokia. Elizaren Presbiterioan.

XVII. mendearen bukaerako oskol-erretaula barrokoa. Bankua, gorputza eta oskola ditu, eta hiru kaletan banatzen da. Bankuan, erdiko kalean, sagrario-ekisaindua dago. Alboetako kaleetan, Andre Mariaren erliebeak ageri dira. Erretaularen gorputzean, erdiko kalean, San Juanen taila dago, eta alboetan, San Antonioren eta San Vicente Ferrerren irudiak. Oskolaren erdialdean idibegi irekia dago, eta, alboetan, landare-motibo, erroleo eta abarren apaingarri ugari. Euskarriak zutabe salomondarrak dira, oso apainduak. Mazoneria guztia ongi urreztatuta dago.

9.2.– Arrosarioko Andre Mariaren erretaula

Kokapena: San Juan Bataiatzailearen parrokia. Nabean, ezkerraldean.

XVII. mendearen bukaerako erretaula barrokoa. Bankua, gorputza eta atikoa ditu. Zutabe salomondarrez markoztatutako erdiko hobian Arrosarioko Andre Mariaren irudia dago, Madrildik ekarria 1740an.

9.3.– Santa Katalina Sienakoaren erretaula

Kokapena: San Juan Bataiatzailearen parrokia. Nabean, eskuinaldean.

XVIII. mendearen erdialdeko erretaula errokokoa, bankua, gorputza eta atikoa dituena eta hiru kaletan banaturik. Erdiko hobian Santa Katalinaren taila dago, eta atikoan Kristo Gurutziltzatuaren irudi errenazentista. Euskarriak zutabeak dira, ertzetan arrokaiaz eta pilastraz apaindurik.

9.4.– Santo Domingo de Guzmanen erretaula

Kokapena: San Juan Bataiatzailearen parrokia. Nabean, eskuinaldean.

XVII. mendearen bukaerako erretaula barrokoa, Arrosarioko Andra Mariaren antzekoa, banku, gorputz eta atikoa dituena. Zutabe salomondarrez markoztatutako erdiko hobian Santo Domingoren irudia dago, Madrildik ekarria 1739an.

9.5.– San Joseren erretaula

Kokapena: Nabean, eskuinaldean.

XVII. mendearen bukaera eta XVIII.aren hasierako erretaula, 1725ean amaitua, banku, gorputz eta atikoa dituena. Hobian, lau zutabe salomondarren artean, San Joseren irudia dago. Lau zutabe salomondarren arteko hobian dago San Joseren irudia.

9.6.– Pulpitua eta bere sabaia

Kokapena: Nabean, ezkerraldean.

Pulpitu barrokoa, burdina forjatuzkoa, kopa batez errematatutako sabaia duena, eta haren gainean San Vicente Ferrerren irudia.

9.– Conjunto de bienes muebles de la iglesia parroquial de San Juan Bautista

9.1.– Retablo Mayor

Ubicación: Iglesia parroquial de San Juan Bautista. En el Presbiterio de la iglesia.

Retablo barroco de cascarón de fines del XVII. Consta de banco, cuerpo y cascarón, y se estructura en tres calles. En el banco, en calle central, está el sagrario-ostensorio. En las calles laterales figuran relieves marianos. En el cuerpo del retablo, en calle central, se encuentra la talla de San Juan, y en las laterales, figuras de San Antonio y San Vicente Ferrer. En el cascarón, en la parte central, presenta óculo abierto y en las laterales, abundante decoración de motivos vegetales, roleos…. Los soportes son columnas salomónicas profusamente decoradas. Toda la mazonería está bien dorada.

9.2.– Retablo de la Virgen del Rosario

Ubicación: Iglesia parroquial de San Juan Bautista. En la nave, en el lado izquierdo.

Retablo barroco de fines del XVII con banco, cuerpo y ático. En el nicho central enmarcado por columnas salomónicas se encuentra la imagen de la Virgen del Rosario traída de Madrid en 1740.

9.3.– Retablo de Santa Catalina de Siena

Ubicación: Iglesia parroquial de San Juan Bautista. En la nave en el lado derecho.

Retablo rococó de mediados del XVIII con banco, cuerpo y ático, estructurado en tres calles. En el nicho central presenta talla de Santa Catalina y en el ático imagen renacentista de Cristo Crucificado. Los soportes son columnas decoradas con rocalla y pilastras en los extremos.

9.4.– Retablo de Santo Domingo de Guzmán

Ubicación: Iglesia parroquial de San Juan Bautista. En la nave, en el lado derecho.

Retablo barroco de fines del XVII, similar al de la Virgen del Rosario, con banco, cuerpo y ático. En el nicho central enmarcado por columnas salomónicas se encuentra la imagen de Santo Domingo traída de Madrid en 1739.

9.5.– Retablo de San José

Ubicación: En la nave en el lado derecho.

Retablo de fines del XVII, comienzos del XVIII, finalizado en 1725, barroco con banco, cuerpo y ático. En el nicho entre cuatro columnas salomónicas se ubica la imagen de San José.

9.6.– Púlpito y Guardavoz

Ubicación: En la nave en el lado izquierdo.

Púlpito barroco de hierro forjado, con guardavoz dorado rematado por copa sobre la que se asienta la imagen de San Vicente Ferrer.

9.7.– Kristo Gurutziltzatua

Kokapena: Goiko korua.

Kristo Gurutziltzatuaren taila, XVI. mendekoa, tamaina naturalekoa, ongi egindako anatomia duena. Garbitasun-oihal urreztatua du, izur horizontal finekin eta ezkerrean korapiloarekin.

10.– Kexaako Monasterioaren artxibo dokumentala

Kokapena: San Juan Bataiatzailearen komentua.

Kexaako Monasterioarekin zerikusia duten dokumentumultzoa. Artxibo dokumental hau ezinbestekoa da Monumentu Multzoa aztertu eta ikertzeko.

11.– San Juan Bataiatzailearen taila

Kokapena: Kexaako museoa.

San Juan Bataiatzailearen irudia, gotiko berantiarrekoa, gamelu-larruz jantzia eta ezkerreko eskuan ardiaren medailoia duela. Hasiera batean elizaren burualdean zegoen.

12.– Kristo Gurutziltzatuaren taila: «Kristo marinela»

Kokapena: Kexaako museoa.

XIV. mendeko eskultura, hiru iltzeduna, anatomia nabarmenekoa eta garbitasun-oihala alde banatan zintzilik duela.

13.– Veneziar kopoia

Kokapena: Kexaako museoa.

XIV. edo XV. mendeko kopa, zilar urreztatuz egina, oktogonala eta piramide-formako taparekin. Oina lobulu askokoa da, eta lau aldeetan lau ebanjelistak ditu, bizantziar ikonografiak. Begian sei medailoi ditu eta dekorazio ugari, edalontzian eta estalkian agatazko xaflak, perlak, beriloak, kornalinak, granateak eta turkesak.

14.– Beste elementu batzuk

14.1.– Gurutzea, nakarrezko inkrustazioak dituena.

Kokapena: Kexaako museoa.

Gurutzea oinazpikoarekin eta nakarrezko inkrustazioekin, XVII. mendekoa. Kristo Gurutziltzatua, San Frantzisko, San Antonio Paduakoa, Oinazetako Ama eta Epifania ageri dira.

14.2.– Epifania

Kokapena: Kexaako museoa.

XVI. mendeko taula-pintura. Eragin flamenkoa du, Ama Birjina agertzen da, Haurra besoetan, eta haren atzean San Jose eta hiru erregeak: Meltxor belauniko eta Gaspar eta Baltasar, opariak eskuan, hurbiltzen. Harkaitzarte bat da ikusten da hondoan.

14.3.– Ama Birjinaren bi irudi, marfilezkoak

Kokapena: Kexaako museoa.

9.7.– Cristo Crucificado

Ubicación: En el coro alto.

Talla de Cristo Crucificado del siglo XVI, de tamaño natural, de lograda anatomía. Tiene paño de pureza dorado, con finos pliegues horizontales y nudo a la izquierda.

10.– Archivo documental del Monasterio de Quejana

Ubicación: Convento de San Juan Bautista.

Conjunto de documentos relacionados con el Monasterio de Quejana. Se trata de un archivo documental imprescindible para el estudio y análisis del Conjunto Monumental.

11.– Talla de San Juan Bautista

Ubicación: Museo de Quejana.

Imagen de San Juan Bautista del gótico tardío, se representa vestido con piel de camello y sosteniendo en su mano izquierda el medallón del cordero. Esta imagen estuvo originariamente situada en la cabecera de la iglesia.

12.– Talla de Cristo crucificado«Cristo marinero»

Ubicación: Museo de Quejana.

Escultura del siglo XIV, de tres clavos, pronunciada anatomía y paño de pureza colgante a ambos lados.

13.– Copón veneciano

Ubicación: Museo de Quejana.

Copa de siglo XIV o XV de plata dorada de forma octogonal y con tapa piramidal. El pie es polilobulado decorado en cuatro de sus lados con los cuatro evangelistas de iconografía bizantina. Tiene nudo decorado con seis medallones y abundante decoración con láminas de ágata, perlas berilos, cornalinas, granates y turquesas, en el vaso y cubierta.

14.– Otros elementos

14.1.– Cruz con incrustaciones en nácar

Ubicación: Museo de Quejana.

Crucifijo con peana e incrustaciones de nácar del siglo XVIII. Con representaciones de Cristo crucificado, San Francisco, San Antonio de Padua, Virgen Dolorosa y Epifanía.

14.2.– Epifanía

Ubicación: Museo de Quejana.

Pintura en tabla del siglo XVI. De influencia flamenca, presenta Virgen con Niño, San José detrás, y los tres reyes, Melchor arrodillado y Gaspar y Baltasar acercándose con sus ofrendas. El fondo es un paisaje rocoso

14.3.– Dos imágenes de la Virgen en marfil

Ubicación: Museo de Quejana.

Ama Birjinaren bi iruditxo barroko, ziur asko ekialdekoak (eskola hispano-filipinarra). Bietan Ama Birjinak ilea solte darama, eta oinetan ilargia. Haurrak munduaren esfera dauka eskuetan.

3. ATALA

BABES ERREGIMENA

1. artikulua.– Xedea.

Honako Babes Erregimen hau Kexaako eraikin-multzoa sailkatutako monumentu-multzo izendatzeko deklarazioaren zati bat da, eta erregimen honen arabera egingo dira kontserbazio-lanak edo jarduerak eraikin-multzo horretako ondasun higigarrietan.

2. artikulua.– Ezarpen-eremua.

Babes-erregimen honen preskripzioak eranskin honetan zerrendatu eta deskribatutako ondasun higigarri guztiei ezarriko zaizkie.

3. artikulua.– Edukia.

Honako testu honetan Kexaako eraikin-multzoari lotuta dauden eta handik bereiztezinak diren ondasun higigarriak babesteko bete beharreko baldintza orokorrak zehaztuko dira.

Babes-erregimenaren zehaztapenak nahitaez bete beharrekoak izango dira ondasun higigarrien gaineko jarduera guztietan, eta uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 37.1 artikuluak dioenari jarraituz zaindu beharko dira.

4. artikulua.– Lotura.

1.– Eranskin honen lehen atalean zerrendatutako ondasun higigarriak ezin dira bereizi Kexaako eraikin-multzotik, eta salbuespen batengatik bereiztekotan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak arrazoituz eman beharko du horretarako baimena, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 37.2 artikuluak dioenez.

2.– Hori errespetatuz, Arabako Foru Aldundiak agindu ahal izango du ondasunak beste norabait eramatea behin-behingoz, kokapen originalak beharrezko baldintzak betetzen ez dituen artean, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 39.2 artikuluak dioenez.<

3.– Ondasun higigarrietako bat edo batzuk lekuz aldatu eta erakusgai jartzeko eskabidea egin ahal izango da, baldin eta beharrezko neurriak hartzen badira zainketa, lekualdaketa eta erakusketa egokiak izan daitezen, batere hondatu gabe. Dena dela, Arabako Foru Aldundiak eman beharko du lekuz aldatzeko baimena.

Dos pequeñas imágenes barrocas de la Virgen posiblemente de procedencia oriental (escuela hispano-filipina). En ambas imágenes se representa la Virgen con cabello suelto y la luna a sus pies. El niño lleva la esfera del mundo en sus manos

SECCIÓN 3.ª

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

Artículo 1.– Objeto.

El presente Régimen de Protección forma parte de la declaración del Conjunto Edificado de Quejana como Conjunto Monumental calificado, debiendo someterse al mismo las actuaciones de conservación o de intervención que se realicen sobre los bienes muebles vinculados a dicho Conjunto Edificado.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

Las prescripciones del presente régimen de protección serán de aplicación para la totalidad de los bienes muebles relacionados y descritos en las secciones primera y segunda de este Anexo.

Artículo 3.– Contenido.

El contenido de este texto fija las condiciones generales a cumplir en lo referente a los bienes muebles que forman parte inseparable y quedan vinculados al Conjunto Edificado de Quejana.

Las determinaciones del régimen de protección serán de obligado cumplimiento para cuantas actuaciones pretendan llevarse a cabo sobre el bien mueble, debiendo conservarse de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Artículo 4.– Vinculación.

1.– Los bienes muebles relacionados en la Sección primera de este Anexo se reconocen como inseparables del Conjunto Edificado de Quejana, por lo que su separación, de carácter excepcional, deberá ser autorizada por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco de forma motivada, en virtud del artículo 37.2 de la citada Ley 7/1990 del Patrimonio Cultural Vasco.

2.– Respetando lo anterior, la Diputación Foral de Álava podrá ordenar el depósito provisional de los bienes en otro lugar en tanto la ubicación original no cumpla las condiciones necesarias para su debida conservación, en virtud de lo previsto en el artículo 39.2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

3.– Se podrá solicitar el traslado de uno o varios de los bienes muebles para su exposición temporal, siempre que se tomen las medidas necesarias para garantizar la conservación, traslado y exposición adecuadas, con el fin de evitar cualquier tipo de deterioro. En cualquier caso, la Diputación Foral de Álava deberá autorizar dicho traslado.

Nolanahi ere, ondasuna betiko tokitik kanpo dagoen bitartean, ziurtatuko da gordetzen den tokian kontserbatzeko baldintza guztiak betetzen direla. Horren froga Arabako Foru Aldundian erakutsi beharko da.

5. artikulua.– Preskripzio orokorrak.

1.– Aipatutako ondasun higigarriak osorik kontserbatu beharko dira, eta jabeen eta eskubide errealen titularren eta edukitzaileen betebeharra izango da haiek kontserbatzea, zaintzea eta babestea, bai eta ez galtzea, hondatzea edo suntsitzea ere.

2.– Aipatutako ondasun higigarriak ezingo dira aldatu, konpondu edo zaharberritu Arabako Foru Aldundiak aurrez baimena eman gabe, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 38.1 artikuluak dioenez.

3.– Ondasunaren gainean egindako jarduera zuzen edo zeharkako guztien xedea izango da hura osorik kontserbatzea. Jarduera zuzenen aurretik dago badaezpadako kontserbazioa, eta beharrezko baldintzak jarriko dira aldaketarik ez gertatzeko eta gehiago ez hondatzeko. Higigarriaren gainean zerbait egitekotan, kontserbatzeak eskatzen duena baino ez da izango, edo, egoerak hala eskatzen duenean, ondasuna ulertzeko eta eskualdatzeko ezinbestekoa dena.

4.– Ezinbestekoak diren jarduerak baino ez dira burutuko, elementuaren ezaugarriak errespetatuko dira eta tratamendu sakonegiak baztertzekoak izango dira, bai eta irudimena gehiegi erabiltzeko edo interpretazio bitxiak emateko joerak ere. Ondasunaren historikotasuna ere zainduko da. Ondasunean burutzen diren jarduera zuzen guztiak adituek nabaritzeko modukoak izango dira, elkarrekin bateragarriak eta egonkorrak, eta posible izango da egindakoa deusezatzea.

5.– Jarduera zuzenak burutu ahal izateko beharrezkoa izango da Foru Aldundi eskudunaren baimena eskuratzea, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 38.1 artikuluak aginduta.

6.– Jarduera zuzenen bat burutu aurretik, jardueren egitasmo teknikoa egingo da, arlo horretan adituak diren profesionalek egina. Jardueren egitasmo teknikoan honako hauek sartuko dira:

a) Diagnostikorako ikerketa, eta horren barruan elementuaren dokumentazio fotografiko eta planimetrikoa, ikerketa historiko eta artistikoa, eta kontserbazioegoeraren azterketa eta diagnostikoa, patologiak eta kalteen jatorriak ere azalduta.

b) Jarduera-egitasmoaren barruan sartuko da jarduera-proposamena. Horretan adieraziko dira egin beharreko lanak, erabiliko diren materialak eta teknikak, jardueraren balorazio justifikatua eta jardueraren

Mientras el bien se encuentre fuera de su ubicación original, se deberá asegurar que el lugar donde se halle depositado cumpla todas las condiciones que garanticen la conservación del bien, lo cual habrá de acreditarse ante la Diputación Foral de Álava.

Artículo 5.– Prescripciones generales.

1. Los bienes muebles vinculados deben ser conservados en su integridad, siendo obligación de los propietarios, titulares de derechos reales y poseedores conservarlos, cuidarlos y protegerlos, así como evitar su pérdida, deterioro o destrucción.

2.– Los bienes muebles vinculados no podrán ser modificados, reparados o restaurados sin la previa autorización la Diputación Foral de Álava, en los términos del artículo 38.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

3.– El objeto de todas las intervenciones directas o indirectas sobre el bien debe de ser su preservación y transmisión íntegra al futuro. Se deberá dar prioridad a la conservación preventiva sobre las intervenciones directas, poniendo las condiciones precisas para evitar alteraciones y frenar su deterioro. Las actuaciones físicas sobre el bien se limitarán a lo estrictamente necesario para una adecuada conservación del bien, o cuando por su estado resulte imprescindible, para su comprensión y transmisión.

4.– El criterio de actuación debe tender a la mínima intervención posible, evitando cualquier alteración de las características del elemento así como el tratamiento excesivo o riesgo de invención o interpretación, respetando la historicidad de la obra. Toda intervención directa en el bien deberá estar sujeta a los principios de legibilidad y reconocimiento de las actuaciones, reversibilidad, compatibilidad y estabilidad.

5.– Para llevar a cabo las actuaciones de intervención directa será necesaria la autorización de la Diputación Foral correspondiente en los términos del artículo 38.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

6.– Las actuaciones de intervención directa deberán ir precedidas de un proyecto técnico de intervención realizado por profesionales especialistas en la materia. El proyecto técnico de intervención constará de:

a) El estudio-diagnóstico, que deberá incluir documentación fotográfica y, en su caso, planimétrica del elemento, investigación histórico-artística del mismo y examen-diagnóstico del estado de conservación con indicación de patologías y causas del deterioro del bien.

b) El proyecto de ejecución de la intervención, que deberá contener propuesta de intervención con indicación de trabajos a realizar, materiales y técnicas a utilizar, y valoración justificada de las actuaciones a

kronograma, egitasmoa betetzeko aldiak eta epeak deskribatuko dituena.

7.– Lanak bukatu eta gero, egindakoaren txostena egingo da, horren berri dokumentuetan jasota uzteko. Txostenean ondorengoa adieraziko da:

a) Lanen arduradunen izenak eta lanak egin diren datak.

b) Ondasunaren deskribapena: nola zegoen ezer egin aurretik eta zein elementu aldatu diren.

c) Kontserbatzeko erabilitako tratamenduaren edo metodoaren justifikazioa, erabilitako materialak aipatuta.

d) Ondasunaren egoerari buruzko azken ebaluazioa, zuzendu ahal diren arriskuak eta baldintza desegokiak aipatuta, horrelakorik egotekotan, eta kontserbatzeko teknikak eta baliabideak azalduta.

Jarduera-txosten hori Arabako Foru Aldundiko Kultura Zerbitzuetara bidaliko da, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzara ere.

6. artikulua.– Ondasun higigarriari buruzko informazioa eta haietan jarduten uzteko beharra.

1.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 24. artikuluan dioenez, lehen ataleko elementuen jabeek, edukitzaileek eta gainontzeko eskubide errealen titularrek lege hori aplikatzeko ezinbestekoa den informazioa eman beharko diete agintari eskudunei.

2.– Era berean, aurreko puntuan aipatutakoek utziko diete agintariei elementuak ikusten, azken horiek aldez aurretik baimena eskatuz gero eta ondasunak ikuskatzea egoki izanez gero. Era berean, ikertzaileei ere utziko diete elementuak aztertzen, Arabako Foru Aldunditik jasotako baimena erakutsirik.

3.– Elementu horiek bisitariei erakusteko, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 24.3 artikuluari jarraituko zaio. Administrazioak ondasunen bat gordailuan jasotzen duen bakoitzean, jendaurrean erakusteko eskubidea ere jasoko du, esandako legearen 40.2 artikuluak dioenez.

7. artikulua.– Eskualdatzea.

Elementu hauek saldu nahi dituenak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari jakinarazi beharko dio asmo hori, jakinarazpena frogatzeko balio duen moduren batean eta Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 25. artikuluan eskatutakoa beteta. Artikulu horrek baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari ondasuna lehentasunez erosteko edo, kasua bada, atzera eskuratzeko.

realizar y cronograma de la actuación con descripción de fases y plazos para la ejecución del proyecto.

7.– Una vez finalizada la intervención se deberá realizar memoria de la actuación con el fin de dejar constancia y documentar el proceso de la intervención que deberá incluir los siguientes extremos:

a) Identidad de los responsables de la actuación y fecha de la intervención.

b) Descripción del estado del bien previo a la intervención con indicación de los elementos que han sido intervenidos.

c) Justificación del tratamiento o método conservativo utilizado, con detalle de los materiales empleados.

d) Valoración final del estado del bien tras la intervención con determinación de riesgos y condiciones adversas para el mantenimiento de la obra susceptibles de corrección, y definición de técnicas y medios necesarios para su conservación preventiva.

Esta memoria de intervención deberá ser remitida a los Servicios de Cultura de la Diputación Foral de Álava y a la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

Artículo 6.– Información y acceso al bien mueble.

1.– De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 24 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, los propietarios, poseedores y titulares de derecho reales sobre los elementos relacionados en la Sección primera deberán facilitar a las autoridades competentes la información que resulte necesaria para la aplicación de dicha Ley.

2.– Deberán asimismo los indicados en el párrafo precedente, permitir el acceso de las autoridades a dichos elementos, previo requerimiento y siempre que sea necesario a los efectos de inspección. Igualmente, están obligados a permitir su estudio por los investigadores, previa presentación de autorización para ello emitida por la Diputación Foral de Álava.

3.– El sometimiento de estos bienes a visita pública deberá llevarse a cabo de conformidad con lo dispuesto en el artículo 24.3 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco. La cesión en depósito de estos bienes acordada con la Administración conlleva el derecho de su exposición al público en los términos del artículo 40.2 de la Ley previamente indicada.

Artículo 7.–.Transmisión.

La pretensión de venta de estos elementos deberá ser notificada fehacientemente al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en los términos establecidos en el artículo 25 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, que faculta al Gobierno Vasco para el ejercicio de los derechos de tanteo, y en su caso, de retracto.

8. artikulua.– Onartutako erabilera-motak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 23. artikuluaren arabera, elementu hauek erabiltzeko edozein modu onartuko da, kontserbatzeko baldintzak bermatuz gero.

Artículo 8.– Usos permitidos.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, se permitirán todos aquellos usos que garanticen la debida conservación de estos elementos.